

**ABIADURA HANDIKO TRENA GELDITZEKO MANIFESTAZIO-DEIALDIA**  
**MARTXOAREN 23an HERNANITIK ASTIGARRAGARA**

Datorren martxoaren 23an, larunbatarekin, Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioa egingo da Hernanitik Astigarragara. Donostialdea-Oarso-Bidasoako AHT GELDITU! Elkarlanak deituta, manifestazioa arratsaldeko 5:30etan abiatuko da Hernaniko Ezkiaga (Tilos) Plazatik, eta Astigarragako Udaletxe Plazan izango du amaiera. Protesta martxa hau "AHT Gelditu! Denon esku dago!" lemapean egingo da, eta horixe da hain justu azpimarratu nahi duguna, gure esku, herriaren esku hain zuzen, dagoela basakeria hau gelditzea.

Manifestazio honek gure herrietan AHTren aurka garatzen ari den oposizioak kalean adierazpen egokia izan dezan eta Euskal Herrian gaurdaino egin diren mobilizazioei bultzada bat ematea lortu nahi du. Kalera irten beharra dugu, erabat antisoziala, antiekologikoa, baliabide xahutzailea eta Euskal Herriarentzat arras desegokia den egitasmo honen aurrean gizarte oposizioa adierazteko eta AHTren geldiaraztea eskatzeko. Deialdia zabalik dago sustengua eman nahi dioten eskualdeko talde sozial, kultur eragile eta indar politiko guztien atxikimenduari (Ikus behealdean telefonoa eta e-mail helbidea)

Egoeraren larritasunak tamainako erantzuna ematea eskatzen digu. Gure ingurugiroari, arlo sozio-ekonomikoari eta kulturalari gogor eragingo liekeen proiektu erraldoi hau setati ari dira bultzatzen Eusko Jaurlaritzatik eta gainerako Administrazioetatik. Azken aldian, gainera, AHTren alde presio egiteko Euskadi-Akitania lobby bat sortu dute, egitasmo horrek eskatzen dituen kalte ekologiko eta sozial oso larriak aintzakotzat hartu gabe. Interes handia erakutsi dute zenbait estamentuk makroproiektu honekin lehenbailehen hasteko, hala Merkataritza Ganberak nola enpresariak eta nazioarteko garraio enpresa handiek. Hauek guztiek beraien interes ekonomikoak gauza guztien aurretik ezartzen dituzte, eta argi dago AHT aurrera eramateko prest daudela kosta ahala kosta, naturarekiko zein gure ingurumen sozialarekiko inongo errespeturik erakutsi gabe eta eredu neoliberal, kapitalista eta globalizatzailea eraikiz.

Herriak bere indarra erakutsi behar du, eta ozen esan: *AHT Gelditu!* Badira etengabeko mobilizazioei esker garaile atera diren borroken adibideak. Guk erabaki behar dugu zer nolako herria nahi dugun, eta ez beste inork!

AHTren aurkako oposizioak eztabaidagai jarri nahi du instituzioetatik bultzatzen ari den garraio eredia, lurralde antolakuntza eta, azken finean, gizarte eredia. Gaur egun ahoz aho dabilen jasangarritasunaren kontzeptuak AHT bezalako proiektu erasokorrak alde batera uztea eskatzen du. Jasangarritasunaren ideia horrek hurbiltasunean oinarrituriko antolakuntza lokalari lehentasuna ematea, naturari begirunea dioten gizarte-ekonomia harremanak sustatzea eta garraio premiak oinarri hauen arabera egokitzea galdegiten du. Oinarritzat dituen balioak solidaritatea, oreka, askatasuna eta ingurugiroarekiko errespetua dira, eta ez teknologiarekiko menpekotasunean, garapenakerian, eta soilik arrazoi ekonomikoan oinarrituriko gizartea. Finean, amalurra, maileguan hartu dugun ondasun preziatuena da, eta beraz, guk, gure ondorengoei hartu genuen bezain ondo edo hobeto eman behar diegu.

Manifestaldi honen aldarrikapena beraz hauxe da: *AHT gelditzea denon esku dago!* Eta, AHTren aurkako borroka, herritarren parte hartzerik gabe eraiki nahi den gizarte proiektu baten aurkako borroka da. Hortaz, aldarrikapenekin bat baldin bazatoz, etor zaitez martxoaren 23an Hernani-Astigarraga AHTren aurkako manifestaziora!

**MANIFESTAZIOAREN ONDOREN KONTZERTUA**

Manifestazioari halako giro alai emateko, eta, bide batez, borroka honen kostuei aurre egiteko asmoz, musika kontzertu bat ere antolatu da Astigarragako frontoian, zeinen *Tapia eta Leturia, LIF, Jaiko Barik, Morau eta Itakunpa perkusio taldea* parte hartuko duten. Era berean, edariak eta ogitartekoak eskuragarri izango dira.

**AHT GELDITU! ELKARLANA**  
**(Donostialdea-Oarso-Bidasoa)**

**Tfnoa.: 943 518168; e-mail helbidea: ahtez@sindominio.net**

**Donostialdea-Oarso-Bidasoa eskualdeko talde eta elkarteei:**  
**MARTXOAREN 23KO MANIFESTAZIOAREN ALDEKO**  
**SOSTENGU BILKETA**

Martxoaren 23an Hernanitik Astigarragara AHTren geldiaraztea eskatzeko egingo den manifestazioa dela eta, atxikimendua adierazi nahi duten eskualdeko talde eta elkarteei sostengu orri hau betetzeko eskatzen diegu:

Taldearen edo elkarrearen izena: \_\_\_\_\_

Kartelak eta panfletoak jaso nahi ditu (kasu honetan kopurua adierazi):

Zuen herri edo auzoan manifestazioaren deialdia zabaltzeko gonbidatzen dizuegu, mobilizazio honetan era aktiboan parte hartzeko moduak zehaztuz: komunikatu bat zabalduz, pankartaren bat jarritz, propaganda banatuz edota mobilizazio honen zentzuarekin bat etorrita egokien ikusten duzuen moduan.

Azkenik, otsailaren 21ean, ostegunarekin, prentsaurreko kolektibo bat egingo dela jakinarazten dizuegu eta bertan parte hartzera animatzen zaituztegu, manifestazioaren deialdia gizarteari zabaltzeko. Hernaniko udaletxean, goizeko 11etan egingo den ekitaldi informatibo honek, talde eta elkarte ezberdinek manifestazioarekin bat egiteko eta AHTri oposizioa erakusteko dituzten arrazoiak adierazteko aukera eskaini nahi du (dena den, bestela ere sostengu komunikatu bat egitea eta aipatu egunaren aurretik guri helaraztea edota prentsa bidaltzea proproatzen dizuegu). Hortaz, zuen parte hartzea eskertuko dugu, baita horren berri guri aldez aurretik ematea ere, bertan adierazpenik egin asmo baduzue.


Zuekin harremanetan jartzeko modua: \_\_\_\_\_

**Ados bazarete, sostengu orri hau martxoaren 19a baino lehen honako helbidera bidaltzea eskatzen dizuegu: AHT GELDITU! ELKARLANA 3243 POSTAKUTXA 20080-DONOSTIA. Nahiago baduzue, atxikimendua telefonoz adieraz dezakezue: 943-518168**

**AHT gelditu! Denon esku dago!!**

**¡Entre tod@s Stop alTAV!**

# MANIFESTAZIOA



**HERNANITIK ASTIGARRAGARA**

Martxoak 23 larunbata

Irteera: arratsaldeko 5:30etan

Hernaniko Ezkiaga (Tilos) Plazatik

... eta ondoren Astigarragan

## KONTZERTUA

9etatik aurrera frontoian

SARRERA: 6 euro

• **JAUKO BARIK** • **MORAU** • **LIF**

• **TAPIA ETA LETURIA**

• **TTAKUNPA** PERKUSIO TALDEA

